

## NIRE KONTAKIZUNA

Gauza askotaz aritu gaitzke baina batez ere mamiari heldu behar diogunean, garrantzizkoan zentratu beharra dago eta batzutan zaila egiten zait zentratzen. Tira, giza eskubideak dira gaia eta beste guztiak beste momentu baterako utzi behar dira.

Nik onartu behar dut nire kokapen ideologikoak edo ikuspegi politikoak, besteen errelatoak entzuterakoan baldintzatu egin nauela. Azkenean norberak errealitatearen irakurketa propioa egiten du bere klabe, sinesmen eta kodigoekin. Eta ez dut "baldintzatua" sentitu nahi, interpretatzera jotzen delako. Entzun eta onartu egin behar da. Hori ere kostatzen den ariketa, nire kasuan behintzat.

Onartu behar den beste gauza bat aldaketarena da. Batzutan inkoherente itxura emateko beldurra ere ematen badu, nik onartzen dut denboran zehar, nire jarrera eta ikuspegiak aldatuz joan direla. Garai honetan eta orain, nire bizipenak desberdinak dira. Hala ere, orduan eta orain mantentzen dudana ideia nagusia badago: Giza eskubideen urraketa bat gertatu da, indarkeria, herriaren salbaziorako tresna gisa erabili da eta horren ondorioz tragedia handi bat bizi izan dugu. Hala ere, momentu eta biktimen arabera, egia da, zenbait gertakizun ulergarriagoak edo mingarriagoak egin zaizkigula. Orain dela hogeitahamar, hogei, hamar urte edo orain, kontestua ez da berdina eta hori kontutan hartu behar da.

Guzti hau esanda, nire ondorioa hau da: Ez du inolaz ere merezi izan. Odoluste ikaragarria izan da. Biktimak eragiten ditu alde guztietatik. Herri independente eta gisa honetako helburuekin bat egiten dugunok konplexu handiarekin bizi izan gara, oso gaizki. Askotan, eta segun non, defensiban eta ixilpean ere bai, gauzak nahas ez zitezen. Izan ere, erabilkeria ere egon delako, erabilkeria interesatua.

Nire ikuspegiaren arabera, kalitate gutxiko demokrazia duen gizarte batean bizi gara. (Kolektibo gisa ari naiz, pertsonak giza kalitate guztietakoak egon badaudelako, eta ikusi izan da). Itogarria, helburuen defentsa egiteko eta konponbide bat lortzeko ez zeuden bide demokratiko nahikorik. Eta horrek asko larritzen nau etorkizunari begira, eraikitzen ari garen gizarteari begira. Bide demokratikoak ez badaude, norberaren helburuak bideratzeko modu zibilizatuak ez badaude, indarkerira bueltatzeko arriskua ere badago. Izan ere, inpotentziak amorrua eta gorrotoa eragin dezakete eta horrek indarkeria. Azkenean, irrazionaltasuna. Lehen ere, gorrotoa sortarazten zuten ekintzak gertatu izan dira (hauek bai oso pentsatuak) eta gorrotoa oso irrazionala da. Arriskutsua, giza baloreek lagunduta edo hoietan oinarrituta kontrolatzen eta egoki bideratzen ez bada.

Bizi izan dugun historia berriro ere buelta daitekeenaren beldur nahiz, gizarte (arloan ezberdinean, baita politikoan ere) honetako adierazpen eta eraldaketarako moduen kalitate demokratikoa hobetzen ez bada.

Nire ibilbideari dagokionean, konklusio edo ondorio batera iritsi naiz.

- Publikoki adierazi dut nire arbuioa, manifestazio, pankarta etab-etan. Batzutan alde batzuetakoak hasarretu izan dira, eta bestetan bestelakoak. Ni beti erdian bezala kokatu naiz eta benetan, URRAKETA nuen ardatz. Ez zait kostatu bi aldeko inorekin enpatizatzea. Eta egia da baita ere ez dudala oso muturreko egoerarik lehen pertsonan bizi izan.

-Batzutan kontestatuak, tentsio politikoak, bortizkeria mediatikoak (dena edo ezer ez, jarrera manikeoa), benetako arriskuak alde guztietatik (lege aldaketak, atxiloketa ulertezinak,

mehatxu baita ere ulertezinak) nigan eragin izan dutela, batez ere ardura politikoak izan ditudanean. Horrek arantzaren bat baino gehiago utzi dit; batez ere , biktima diren pertsona batzukin, beharko nukeen gertutasun maila ez adieraziz.

-Kontua ez da , nire ustez, niri pasa izan zaidana (nahiz eta nire errelatoa den), baizik bizipen horiek isolatuak ez direla jakitea. Hor , guztiok lagundu dugu gizartea izan den bezalakoa (beldurti, mesfidati, ilun.... ) arlo askotan izaten.

Beste alde batetik , niretzat oso garrantzizkoa eta gaur egun, lasaiago bizitzen lagundu izan diren ekimenetan aurrera egiteko gaitasuna duen gizarte bat ere bagarela adierazi izan du Euskal gizarteak. Hori ere onartu beharra dago. Indarra, itxaropena, aurrera egin beharraren konbentximendua. Eta hor ere partaide izan gara eta izaten jarraitzen dugu. Gure gizartearen konplexutasuna agertzen da berriro ere.

Esandakoen argibide gisa, niretzat inflexio puntuak izan direnak aipatuko nituzke:

- Miguel Angel Blancoren hilketa. Hor benetan, amorrua, tristura ...denetarik sentitu nuen. Ez zegoen justifikaziorik eta barrutik mugitu ninduen. Hor jendearen "mixerabletasuna" azpimarratuz egon nintzen denbora batean (noski, alde batekoa). Baina erantzunean , "bestelakoak" ere ikusi nituen eta hori ere ez zen gustagarriagoa izan.

- Beste alde batetik, "Lizarra- Garazi" aipatuko nuke. Ilusio handia sortu zuen eta batzuk dena eman zuten aurrera ateratzeko baina hori ere ez zen posible izan. Ez zen aurrera atera. Indarra ikusten nuen hor. Gizartearen indarra, positiboki esanda, oso nabarmen geratu zela uste dut.

Baina hortaz gain, nik ere gogoan ditut "*Egunkariaren itxiera*". Hori benetan astakeria iruditu zitzaidan, gauzak nahaste horretan ikaragarritzko aurrerapauso antidemokratikoa suposatu zuelako, kolpe erabat antidemokratikoa izan zen hura niretzat eta hor ere amorrua sentitu nuen.

Oso gogoan dut, "*bi pankartatako manifestazio*" garaia. Paradoxikoa. Guztiok giza urraketa baten salaketan geunden baina ezin ginen elkarrekin joan. Hor erabilkeria hutsa zegoela iruditzen zitzaidan eta zait. Oso oso tristea iruditzen zitzaidan eta egiten zait biktimen kontura politika egitea.(Hori nire interpretazioa zen eta da, noski). Gainera, egoera horietan, gorrotoa pil-pilean zegoen eta lehengo haritik, egoera zail eta arriskutsuak.

*Uria*ren hilketa , "*Korta*", Unai Romanoren tortura, *su-eten ezberdinen* gora beherak....Gauza asko.

Errelatoak ikuspegi subjektiboa du eta aldakorra da denboran nire ustez, norberaren denbora-espazioa kontutan hartuz baina ikasgai bat atera dut nik: benetan konpondu nahi diren puntuak badaude, bideak lor daitezke.

Eta batez ere, gure herriaren eta herritarren historiari dagokionean, beste ondorio bat: ezin daiteke sekula "Garaile" edota "Garaituez" hitz egin. Denak izan gara galtzaile giza ikuspegi batetik, beti ere. Bai alde batekoak, bestekoak, eta erdian zeuden asko eta asko, ere bai.